



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



2020kourriaren19tik 23ra
Undermount-en (Igeldo, Donostia)
Galtzagorri elkarte
galtzagorri@galtzagorri.eus

943 471 487

MARRAZIOAK XII

ZOTZAK BILTZEN

Ahozko tradizioko kantak eta poesia ilustratuz

MAITE GURRUTXAGA eta JUAN KRUZ IGERABIDE

ZER:

Ahozko tradizioa ardatz hartuko duten lehenengo MarraziOak izango dira hamabigarrenak. Juan Kruz Igerabide poetak eta Maite Gurrutxaga ilustratzailea izango ditu gidari. Igerabide euskarazko ahozko tradizioaren gaian aditua bezain aritua da eta Gurrutxaga MarraziOak tailerrean hiru aldiz ikasle gisa parte hartu eta gero, gidari gisa dator oraingoan punta-puntan dagoen bere lanaren bermea duela.

Tailerrean, gidariek, parte hartuko duten ilustratzaileekin batera, herri poesiako materiala ezagutuko dute eta sekuentziazio-aukerak landuko dituzte. Mota askotako materiala eskaintzen digu herri tradizioak: antzerki-eszena modukoak (Txirristi-mirristi: salda prestatu eta irenstea); jokaera magikoak (Atxia-motxia: sorginkeria modu bat); zenbakiak desitxuratuz eginikoak (Baga, biga; Bat, Mattin parrat), amaierarik gabeko lanak (lihoaren penak, O Pello, Pello...); segida-txandakatuak (Akerra ikusi dugu, Behin joan nintzen azokara...). Sekuentziazioetarako denbora eta espazio-osagai mota asko ageri dira, baina baita pertsonaien egoerak edo gorputz-jarrerak ere (hatzekin eginiko jolasak ere hor sar genitzake, esate baterako).

NOLA:

Aurtengo edizioan ahozko tradizioaren kanta eta poesia ilustratzeko bideak landuko dituzte. Bideok tradizioa hurbil daitezkeela edota apurtzaileak izan daitezkeela erakutsiko diete gidariak. Elkarrekin arakatuko dute bidea, bide zabala eta aberatsa inondik ere. Horrez gain, euskal ahozko tradizioa ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileak.

Lehenengo egunean herri tradiziotik datozen poesiak ezagutzera emango dituzte gidariak parte-hartzaileak materialaren ikuspegi ahalik eta zehatzena izan dezaten. Materiala ezagutu eta aztertzearekin batera, ikasle bakoitzari poesia horietako bat aukeratzeko eskatuko zaio berai ilustratzen has dadin. Hala, tailerraren ordu praktikoak lan horri eskainiko dizkiote. Aztertuko dituzten poemak sekuentziatzeko modu narratiboak eta estetikoak landuko dituzte. Proposamenak, ideiak, ezagunak eta ez hain ezagunak diren erantzunak eta materialen zein ilustrazioen aukera oparoak landuko dituzte, besteak beste. Azterketa horretatik ateratako ondorioak praktikan jartzen saiatuko dira, eta ikasleek hautatutako poesia jakin horri ondoen egokitu dakioken bidea jorratuko dute. Praktika orduetan parte-hartzaileak eskura izango dituzte gidariak; bidean lagunduko diete, hausnartzeko tarteak bilatuko dituzte eta aukera berriak aztertuko dituzte.

IRAKASLEAK:

Maite Gurrutxaga

Juan Kruz Igerabide

NOIZ ETA NON:

2020ko urriaren 19tik 23ra, Undermount-en (Aita Orkolaga pasealekua 46, Igeldo, 20008, Donostia). * Donostiako autobus linea bertan geratzen da, 16. zenbakia, Donostiako Gipuzkoa plazan hartzen dena.

Ordutegi jarraitua izango du aurten tailerrak: 10:00etatik 18:00etara, bazkaltzeko ordubeteko atsedenaldiarekin. Parte-hartzaileek beren bazkaria eraman beharko dute.

Asistentzia derrigorrezkoa da: parte-hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.

NORENTZAT:

Gehienez 10 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Parte hartzaileek Euskal Herrikoak izan behar dute.
- Galtzagorri Elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskadiko Ilustratzaileen Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.
- Parte hartzaileek ez dute zertan argitaratutako lanik izan behar.

ESKAINZA:

Topaketa hauetan **formazioa doan** eskainiko zaie irakasleek aukeratzen dituzten 10 lagunei. Guztira, 35 orduko tailer praktikoa egiteko beka bana eskuratuko dute.

IZEN EMATEA:

- Ilustratzaile bakoitzak bere hiru lan bidali beharko dituzte, beren estiloa, estetika eta ildoak irudikatzen dituztenak.
- Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko du:
 - Curriculumuma
 - Naren kopia bat
 - Posta elektronikoaren helbidea
 - Telefono zenbakia

Dokumentazioa wetransfer bidez bidali beharko du administrazioa@galtzagorri.eus – era.

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2020ko uztailaren 24a** izango da.

Aukeratutakoei 2020ko irailaren 11rako erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEAK:

Galtzagorri Elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

943 471 487

www.galtzagorri.eus

administrazioa@galtzagorri.eus